

Euskal Herria  
País Vasco  
Basque  
Country



Miren Jaio

# Estanpa bilduma

Colección de estampas ■ A Collection of Prints



etxe  
pare  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
BASQUE INSTITUTE





Miren Jaio

# Estampa bilduma

Colección de estampas ■ A Collection of Prints

Ikusizko artea Euskal Herrian

Las artes visuales en el País Vasco

Visual Arts in the Basque Country

EUSKAL HERRIA  
PAÍS VASCO  
BASQUE COUNTRY

## Euskal Kultura Saila

Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series

---

- 1 Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / Literatura vasca del siglo XX / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / Música clásica vasca / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La canción vasca: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 **Estanpa bilduma** / Colección de estampas / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cine vasco / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Arquitectura y diseño / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danza vasca / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / El bertsolarismo / *Bertsolaritza*
- 10 Tradizioak / Tradiciones / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / Sobre cocina vasca / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Teatro vasco / Basque Theater

**Euskal Kultura Sailaren editorea**  
**Editora de la Colección Cultura Vasca**  
**Basque Culture Series Editor:**

Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texto / Text:**

Miren Jaio

© **Euskarazko itzulpena:**

Miren Ibarluzea

© **Translation into English:**

Cameron Watson

© **Diseinua / Diseño / Design:**

Tiktak multimedia

© **Azala / Portada / Front Cover**

Klera-laborategia (1972). Jorge Oteiza Fundazio-Museoa.  
Laboratorio de tizas (1972). Fundación-Museo Jorge Oteiza.  
Chalk laboratory (1972). Jorge Oteiza Museum Foundation.

**Inprimatzailea / Imprime / Printed by:**

Gráficas Dosbi

**L.G. / D.L. / L.D.:** VI-449/2012

**ISBN:** 978-84-614-9760-7

**Etxepare Euskal Institutua**

Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute

Prim 7, 1

E- 20006 Donostia-San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

# Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “**Euskara, jalgi hadi mundura**”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzaileak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, se publicó el primer libro en euskara *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare, quien formuló un deseo: “**Euskara, jalgi hadi mundura**” (Euskara, muéstrate al mundo).

El Instituto Vasco Etxepare toma su nombre de este primer autor vasco, y convierte, además, su deseo en nuestro lema. Siendo el objetivo y la misión del Instituto la de promover y difundir la lengua y la cultura vasca por todo el mundo.

Por un lado, es nuestra tarea fomentar el conocimiento sobre nuestra lengua, y su aprendizaje en el ámbito académico. Y por otro, queremos dar a conocer internacionalmente las manifestaciones artísticas de nuestros creadores: artistas plásticos, músicos, bailarines, escritores, directores de cine, actores, etc.

Una de las primeras tareas en la internacionalización de nuestra lengua y cultura ha sido crear esta colección con el objetivo de informar sobre nuestro idioma, el euskara, y sobre todas las disciplinas artísticas y culturales que conforman la riqueza de nuestra cultura.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute's objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

## Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria  
Directora del Instituto Vasco Etxepare  
Director of the Etxepare Basque Institute



---

# Aurkibidea

## Índice ■ Index

---

**Estampa bilduma**  
Colección de estampas  
A Collection of Prints

6

**Argazkiak / Fotografías / Photographs** 78

Miren Jaio 80

---

Miren Jaio

## Estanpa bilduma

---

Colección de estampas

A Collection of Prints

Estanpa irudi-genero anakronikoa da, baita hari lotzen zaion kostunbrismo izeneko literatur estiloa ere. XIX. mendearen erdialdean eta XX. mendearen hasieran, estanpa kostunbristek ia gizarte osoaren eguneroko erretratua egin zuten. Modernitatearen auzia alde batera utzita, nahiz eta nolabait eztabaida horretan sartu ere ez ziren egin, aipatutako erretratuaren baitan zeuden, gurutzaturik, positibismoaren deskripziorako zehaztasuna edo eszena pintoresko atseginetarako gustu burgesa.

Euskal Herrian agerikoa da estanpak bat egin zuela orotariko teknikekin. Hala agertzen dute, esaterako, Eulalia Abaituaren (1853-1943) xaflek (Abaitua argazkilari afizionatua zen, gizon-emakumeak eguneroko egitekoetan erretratatzeko zituena), Victor Patricio de Landaluzeren (1827-1889) akuarelek (*Los tipos y costumbres de la isla de Cubakoekin*, Kubako gizartearen herri-arketipoen galeria finkatu zuen euskal pintore horrek) edo Pio Barojaren (1872-1956) *Fantásias vascas* nekazaritza-giroko ipuinen bildumak.

*Fantasiak* izenburuaren bidez, 98ko belaunaldiko eleberrigile donostiarrak izen bereko musika molde erromantikoaren adierazpen-askatasuna dakar gogora. Forma gutxituak izaki, estanpa eta fantasia modernitatearen ordezkari ziren, nolabait XIX. mendeko forma burges handiak -eleberria, opera, sinfonia- izan ez zitezkeen gisan. Ordena nagusia beronesteaz gainera, potentzial kritikoz beterik dago estanpa, eta jasotzen dituen eguneroko kontuak baino gehiago, arrazoi teknikoak dira ezegonkortzeko duen potentziala ematen diotenak. Hala, estanparen zentzu literala hauxe da: irudiak, pinturak eta argazkiak erreproduzitzen dituen euskarria. Hainbat kopiatan erreproduzitzeko modua izateaz gainera, estanpa ez da bakarturik agertu ohi, ezpada osotasun gisa, era askotara ordena daitekeen osotasun gisa, alegia.

Testu honen kasuan, estanpa-bildumen zatikako eta osatu gabeko formatura jo dugu; estanpak irizpide subjektiboek jarraiki hautatu dira, eta ordena



El género de la estampa resulta anacrónico. También el costumbrismo, el estilo literario al que se asocia. A mediados del XIX y comienzos del XX, las estampas costumbristas realizarían un retrato del día a día de la totalidad social. Periférico al debate de la modernidad, aunque en modo alguno ajeno a él, en ese retrato se cruzaban rasgos como el rigor descriptivo del positivismo o el gusto burgués por un pintoresquismo amable.

La manera en la que la estampa se acomodó a técnicas diversas se hace aparente en el contexto del País Vasco. Así lo muestran las placas de Eulalia Abaitua (1853-1943), fotógrafa aficionada que retrataba hombres y mujeres en medio de sus tareas; las acuarelas de Víctor Patricio de Landaluze (1827-1889) en *Los tipos y costumbres de la isla de Cuba*, con las que el pintor vasco fijaría la galería de arquetipos populares de la sociedad cubana; o la colección de relatos del mundo rural *Fantasías vascas* de Pío Baroja (1872-1956).

Con el título “fantasías”, el novelista de la generación del 98 evocaba la libertad expresiva de la forma musical romántica de igual nombre. Desde su condición de formas menores, la estampa y la fantasía representaban una modernidad a la que las grandes formas burguesas del XIX, la novela, la ópera o la sinfonía, no podían aspirar. La estampa, aunque sancionadora del orden imperante, se aparece cargada de potencial crítico. Más que los asuntos cotidianos que recoge, son razones técnicas las que le dotan de ese potencial destabilizador. Así, el sentido literal de estampa es el de un soporte que reproduce en papel dibujos, pinturas y fotografías. Además de reproducible en copias múltiples, la estampa no suele presentarse aislada, sino en forma de un conjunto que se presta a ordenaciones varias.

Para este texto se ha optado por el formato fragmentario e incompleto de la colección de estampas, seleccionadas siguiendo un criterio subjetivo y

The print genre is now an anachronism, like *costumbrismo* (a romantic interpretation of local everyday life, mannerisms, and customs), the literary style with which it is associated. In the mid-nineteenth and early twentieth centuries *costumbrista* prints painted an everyday picture of society as a whole. Peripheral to the debate on modernity, although not so far removed from it, certain features such as the descriptive rigour of positivism and the bourgeois penchant for the pleasant picturesque coincided in this picture.

The means by which prints adjusted to different techniques became apparent in the context of the Basque Country. There, this is demonstrated in the plates by Eulalia Abaitua (1853-1943), an amateur photographer who portrayed men and women going about their chores; the watercolours of Víctor Patricio de Landaluze (1827-1889) in *Los tipos y costumbres de la isla de Cuba* (The figures and customs of the island of Cuba), with which the Basque painter fashioned a mass of popular archetypes in Cuban society; and *Fantasías vascas* (Basque fantasies), a collection of paintings depicting the rural world by Pío Baroja (1872-1956).

By using the title “fantasies”, the novelist and member of the Generation of 98 was evoking the expressive freedom of the similarly titled romantic musical form. From their position as lesser forms, prints and fantasies represented a modernity to which the great nineteenth-century bourgeois forms—the novel, the opera, and the symphony—could not aspire. The print genre, whilst it did support the dominant order, was full of potential for critique. Beyond the everyday topics it included, its technical dimension endowed it with a potentially destabilising nature. Thus, the literal meaning of a print is that of a medium which reproduces sketches, paintings and photographs on paper. Besides the ability to reproduce multiple copies of these, prints are not usually presented in isolation but, rather, in the form of a set which lends itself to several arrangements.

Victor Patricio de Landaluze. *Corte de caña* (1874)



Victor Patricio de Landaluze. *Los Negros Curros* (1881)



kronologikoan emanda datoz. Hala, dakargun erre-  
pensorioa, ezinbestez, mugatua eta partziala da,  
ezinezkoa baita estanpa guztiak biltzea. Gure hel-  
burua Euskal Herriko ikusizko arteen historiaren  
hainbat uneri buruzko ikuspegiak ematea da.

Estanpak biltzetik esanahi berriak sortzen dira. Har  
ditzagun Landaluzeren bi eszena: *Corte de caña* (=Ka-  
naberak mozten) eta *Los negros curros* (=Beltz “ku-  
rroak”). Lehenengoa 1874ko olio-pintura da: atzeal-  
dean azukre-makinen tximiniei kea darien artean,  
pertsona-talde bat kanaberak mozten ari da. Biga-  
rrena 1881eko akuarela da: zita adeitsu batera ga-  
ramatza. Bi irudiak justaposizioan jarrita, erabilitako  
tekniken arteko kontrasteak eragindako ezberdinta-  
sunak ditugu –olio-pinturaren dentsitatea eta aku-  
relaren arintasuna–, bai eta bi lan-munduk –nekaza-  
ritza-giroa eta hiri-giroa– eragindakoak, edo lanaren  
denborak –ezarritako eta erregulatutako denbora–  
eta aisiarenak –denbora librea– eragindakoak ere.

Esklaboen eskulanari esker, azukre-kanabera espai-  
niar koloniaren esportazio nagusienetako bat bihurtu  
zen. Panorama aldatu egin zen 1880ko hamarkadan,  
irlan esklabutza abolitu zenean. Hala, *Kanaberak  
mozten* estanpan erretrataturiko figurak (zaldi gai-  
neko azal-zuria izan ezik) pintatu ziren unean, sub-  
jektuak baino gehiago, hirugarrenen jabetzak ziren,  
lege-esparruari zegokionez, behintzat. Oleoa Karibe  
osoan komuna zen fenomeno bati buruzko doku-  
mentua da: Europako metropolieta jabetzan eta  
askatasunean oinarritutako ilustrazioaren ideien  
defentsa egiten zen artean, kolonietan esklabotza-  
sistema aplikatzen ari zen.

Baina, nor dira, oster, bigarren irudian azaltzen zaiz-  
kigun beltzak, zartzuela batean baleude legez erre-  
tratututa agertzen direnak? Beltz “kurroak” ez ziren

dispuestas de acuerdo a un orden cronológico. El repertorio resultante es obligadamente limitado y parcial. Imposible recoger todas las estampas que hay. El objetivo de las elegidas es ofrecer vistas de distintos momentos de la historia de las artes visuales en el País Vasco.

For this text, a fragmentary and incomplete format has been chosen for a collection of prints selected according to a subjective criterion and arranged in chronological order. The resulting repertoire is necessarily limited and partial. It is impossible to cover all the prints in existence. The objective of the choice here is to offer an insight into different periods in the history of the visual arts in the Basque Country.

Del encuentro de estampas emergen nuevos significados. Tómense dos escenas de Landaluze, *Corte de caña* y *Los negros curros*. En la primera, un óleo de 1874, mientras al fondo humean las chimeneas del ingenio azucarero, un grupo se afana en el corte de caña. La segunda, una acuarela de 1881, nos traslada a un encuentro galante. De la yuxtaposición de las dos imágenes surgen diferencias nacidas del contraste entre las técnicas empleadas —la densidad del óleo y la ligereza de la acuarela—, los mundos —el rural y el urbano— y los ámbitos retratados —el del trabajo, tiempo impuesto y regulado, y el del ocio, tiempo libre.

Gracias al uso de mano esclava, la caña de azúcar se convirtió en una de las principales exportaciones de la colonia española. Este panorama cambiaría con la abolición de la esclavitud en la isla en la década de 1880. De aquí se infiere que la existencia legal de las figuras retratadas en *Corte de caña*, a excepción de la de piel blanca montada a caballo, era, en el momento en el que fueron pintadas, no la de sujetos, sino la de propiedades de terceros. El óleo documenta así un fenómeno común a todo el Caribe: la aplicación en las colonias de un sistema esclavista en el momento en el que en las metrópolis europeas se defendía un ideario ilustrado basado en la propiedad y la libertad. Pero, ¿quiénes son esos otros negros que aparecen en la segunda composición retratados con las poses afectadas de una zarzuela? Los negros curros no eran esclavos ni africanos, sino criollos “nacidos en tierras

When prints come together new meanings emerge. Take, for example, the two scenes in Landaluze’s *Corte de caña* (Cutting cane) and *Los negros curros* (Some free blacks). In the former, an 1874 oil painting, whilst the chimneys of sugar plants belch out smoke in the background, a group toils away cutting cane. In the latter, an 1881 watercolour, we are transported to an elegant encounter. From the juxtaposition of the two images differences emerge stemming from the contrast between techniques employed (the density of the oil painting and the lightness of the watercolour), the two worlds (rural and urban), and the environments portrayed (one of work, an imposed and regulated moment, and the other of leisure or free time).

Thanks to the use of slave labour, sugarcane became one of the main exports of this Spanish colony. This would all change with the abolition of slavery on the island in the 1880s. From this one can infer that the legal status of the figures portrayed in *Corte de caña*, with the exception of the white man riding a horse, was, at the moment they were painted, not as subjects but instead as the property of a third party. The oil painting thus documents a common phenomenon all over the Caribbean: the application of a slave system in the colonies at a time when in the European metropolises property and freedom underpinned the ideology of the Enlightenment.

Yet who were these black people that appeared in the second composition, portrayed with the affected

---

Jakingura hori arrunta zen, oso, kontuan hartuta gauzen arrazoia bilatzeak menderatzen zuela garai positibista hura. Halaber, isolamenduak eta euskararen jatorriaren ezagutza ezak azaltzen zuten, XIX. mende hasieran, dagoeneko, euskal kulturarenganako eta hizkuntzarenganako European zuten interesa.

---

esklabo afrikarrak, “zurien lurretan” jaiotako hiritar kreolak ziren. Hirietako albo-auzoetan bizi ziren, eta izengoitia haien bizimoduari zegokion; izan ere, hanpa sevillarraren arabera bizimodua egiten zuten: klaserik gabeak eta marjinalak ziren, ez ziren ez esklaboak, ez gizaki zuri askeak; janzkera eta hizkera berezia zuten; beltz “kurroek” erronka jotzen zioten unean nagusi zen ordenari.

---

Zenbait urte geroago, Eulalia Abaituak beirazko xafletan agertu zituen proletario bizkaitarren bizimoduko hainbat eta hainbat eszena. Erretratugilearen eta erretratatuaren arteko gizarte-mailaren ezberdintasun mugaezina ere agerian dago burgesia goreneko emakume horren argazkietan. Abaituak jende arruntaren erretratuak egiten zituen, batez ere emakumeenak. Edonola ere, itsaso zabal batek banatzen zituen euskal gizarte ia homogeneoa eta Kubako gizarte esklabistako egiturazko indarkeria.

Argazkilariaren biografiak agertzen duenez, itsasoak batu ere batzen zituen hain gizarte ezberdin horiek; hain zuzen ere itsasoaz bestaldeko komertzio aberatsaren bidez. Olano, Larrinaga & Co. itsas nabigazio konpainian egin zuen lan Abaituaren senarrak; bada, konpainiak Liverpoolen zuen egoitza. Hiri hartan bizi izan ziren senar-emazteak Begoñako elizateko (gero batu zitzaion Bilbori) Pino Jauregira bizitzen joan aurretik. Jauregiaren sotoan jarri zuen argazkilariak laborategia.

Arratiako aitona-amonen argazki-bilduman, modelo gisa egiten zutenekin batera desagertzeaz zeuden tipologia fisikoak, janzkerak eta orrazkerak jaso zituen argazkilariak. Bildumak agerian uzten zuen etnografiarako jakingura. Telesforo Aranzadik barneratu zuen diziplina hori Euskal Herrian. Jakingura hori arrunta zen, oso, kontuan hartuta gauzen arrazoia bilatzeak menderatzen zuela garai positibista hura. Halaber, isolamenduak eta euskararen jatorriaren ezagutza ezak azaltzen zuten, XIX. mende hasieran,

de blancos". Vivían en los arrabales de las ciudades y debían su renombre a su estilo de vida, modelado según los modos del hampa sevillana. Desclasados y marginales, ni esclavos negros ni hombres libres blancos, con su peculiar modo de vestir y hablar, los negros curros desafiaban el orden imperante.

pose of a *zarzuela*? These free blacks were neither slaves nor Africans, but Creoles "born in the white man's land." They lived in the slums of the cities and owed their name to their lifestyle, modelled on the Seville underworld. Devoid of specific class status and marginal, neither black slaves nor free white men, with the singular way of dressing and speaking, these free blacks challenged the dominant order.

Años después, Eulalia Abaitua plasmaría en placas de vidrio escenas de la vida cotidiana del proletariado vizcaíno. La insalvable desigualdad social entre retratista y retratado estaría también presente en las fotografías de esta mujer de la alta burguesía que retrataba a gente común, sobre todo mujeres. En cualquier caso, un océano separaba las diferencias de clase de una sociedad vasca relativamente homogénea de la violencia estructural de la sociedad esclavista cubana.

Como muestra la biografía de la fotógrafa, ese océano conectaba dos mundos distantes a través del boyante comercio de ultramar. La compañía de navegación Olano, Larrinaga & Co., en la que trabajó el marido de Abaitua, tenía su sede en Liverpool, ciudad en la que vivió la pareja antes de instalarse en el Palacio de Pino en la Anteiglesia de Begoña, más tarde anexionada a Bilbao, y en cuyo sótano la fotógrafa instaló su laboratorio.

En su serie de retratos de ancianos del valle de Arratia, registró los tipos físicos y unos modos de vestir y peinarse que estaban destinados a desaparecer junto con quienes servían de modelos. La serie evidenciaba una curiosidad por la etnografía, disciplina de la que Telesforo Aranzadi (1860-1945) sería introductor en el País Vasco. Esa curiosidad era común en una era positivista dominada por la búsqueda de la razón de ser de las cosas. El excepcional aislamiento y el desconocimiento de los orígenes del euskera explicaban así el interés que ya desde inicios del XIX

Years later, Eulalia Abaitua reflected the day-to-day life of the Bizkaian proletariat on glass plates. The insurmountable social inequality between the portrait photographer and those portrayed would also pervade the photographs of this high bourgeois woman who depicted normal people, especially women. In any event, there was an enormous gulf between the class differences of a relatively homogenous Basque society and the structural violence of Cuban slave society.

As the photographer's biography shows, that gulf connected two distant worlds through buoyant overseas trade. The shipping company Olano, Larrinaga & Co., in which Abaitua's husband worked, had its headquarters in Liverpool, where the couple lived before settling in the Palacio del Pino in the parish of Begoña, which was later annexed to Bilbao, and in whose basement the photographer installed her laboratory.

In a series of portraits of old people in the Arratia Valley, she recorded the physical types and dress and hairstyles that were on the verge of disappearing along with those who served as her models. This series demonstrated her curiosity in ethnography, a discipline that Telesforo de Aranzadi (1860-1945) would introduce into the Basque Country. Such curiosity was typical in a positivist era dominated by the quest for explaining things. The exceptional isolation of and lack of knowledge about Euskara thus explained the awakening interest in Europe, already by the early nineteenth century, in the culture and vernacular language of the Basques.



Eulalia Abaitua Allendesalazar.

1: *Lehenagokoien begiratuak / Miradas del pasado / A gaze at the past.*

2: *Arratiako gizona / Hombre de Arratia / A man from Arratia.* Arratia, Bizkaia.

3: *Eusebia Amezola Eduardo ilobagaz / Eusebia Amezola con su nieto Eduardo / Eusebia Amezola with her grandson Eduardo.* Begoña, Bilbao.

4: *Portuan arraina aukeratzen / Seleccionando la pesca en el puerto / Selecting fish in the port.* Santurtzi, Bizkaia.

5: *Nerbioiko ontziolak / Astilleros del Nervión / Shipyards on the Nervión River.*

dagoeneko, euskal kulturarenganako eta hizkuntzarenganako European zuten interesa.

Beste zenbait estapanan, Abaituak lan-eszenak jaso zituen. Laiariak, urketariak, neskameak, inudeak eta portuko zamaketariak, kasurako, euskal gizarteak bizi zituen aldaketen irudi dira. Aldaketa horiek industrializazioa eta euskal nazionalismoa gisako faktoreen konbinazioz sortutakoak ziren. Bada, lehenengoaren eraginek (bizimodu tradizionala aldatzea eta hiriko bizimodu modernoari ekitea, euskararen erabilera murriztea...) paisaia berriaren aurkako sentimendua orokortzea ekarri zuten; artean, 1876an Foruak abolitu izanak eragin zuen nazionalismoa piztea.

Abaituaren 1908ko argazki batean dozenaka pertsona ageri dira ikurrinaren aurrean jarrita. Irudia Begoñako Batzokiaren (Euzko Alderdi Jeltzalearen gizarte-egoitza) inauguraziokoa da, Pino Jauregitik eta Larrazabal baserritik gertu. Azken horretan bertan egin zuen lehen aldiz Sabino Aranak (1865-1903) bere ideien defentsa: kanpotik etorritako jendearen eta euren ohituren aurretik gurean bizi zen jatorrizko egoerarako itzulera eskatu zuen.<sup>1</sup>

Argazkilariaren bizilekutik hurbil, Bilboko Erronda kalean, jaio zen Miguel de Unamuno (1864-1936), gaztetan aro euskaltzalea bizi ostean, 1895ean *En torno al casticismo* (=Jatortasunaren inguruan) izeneko lana plazaratu zuena. Unamunoren lehengusu eta lagun Aranzadiren ahaleginak “euskal

<sup>1</sup> Jose Luis Granja (ed.): *De fuera vendrá... Comedia en tres actos (1898) por Sabino Arana Goiri*, Donostia-San Sebastián, Haranburu Editor, 1982.





despertaron en Europa la cultura y la lengua vernácula de los vascos.

En otras estampas, Abaitua recogió escenas laborales. Las imágenes de layadoras, aguadoras, criadas, añas y estibadoras del puerto dan cuenta del proceso de cambios por el que atravesaba la sociedad vasca. Aquéllos eran producto de la combinación de factores como la industrialización y el nacionalismo vasco. Si bien los efectos de la primera (sustitución de las formas de vida tradicionales por las urbanas modernas, descenso del uso del euskera...) contribuyeron a generalizar un sentimiento de dislocación ante el nuevo paisaje, el desencadenante del nacionalismo sería la abolición de los Fueros en 1876.

Una fotografía de Abaitua de 1908 muestra a decenas de figuras posando ante una *ikurriña*. La imagen pertenece a la inauguración del *batzoki*, –sede social del Partido Nacionalista Vasco– de Begoña, cerca del Palacio de Pino y del caserío Larrazabal, donde en 1893 Sabino Arana (1865-1903) defendiera por primera vez un ideario caracterizado por el reclamo de la vuelta a un estado originario, previo a la llegada de gentes y costumbres “de fuera”.<sup>1</sup>

No lejos tampoco de la residencia de la fotógrafa, en la calle bilbaína de Ronda, nació Miguel de Unamuno (1864-1936), quien, tras una breve etapa juvenil vasquista, publicaría en 1895 *En torno al casticismo*. Si los esfuerzos de Aranzadi, primo y amigo del escri-

In other prints, Abaitua collected work scenes. Images of women working the soil with *laiak* (two-pronged forks), water-carriers, housemaids, nannies and female stevedores reveal the process of change which Basque society was going through. Those people were the products of a combination of factors such as industrialisation and Basque nationalism. Even if the effects of the former (the replacing of traditional ways of life by more modern urban settings, the decreasing use of Euskara, and so on) contributed to diffusing a feeling of dislocation in this new landscape, the spark that set off nationalism was the abolition of the *fueros* (a body of law guaranteeing regional rights and privileges in the Basque Country) in 1876.

A photograph by Abaitua in 1908 shows dozens of people posing in front of an *ikurriña* (Basque flag). The image represents the inauguration of the *batzoki* (a social headquarters and meeting place for the Basque Nationalist Party) of Begoña, close to the Palacio de Pino and the Larrazabal farmstead. It was in the latter, in 1893, where Sabino Arana (1865-1903) first defended an ideology characterised by its call to return to a previous state, prior to the arrival of people and habits “from elsewhere”.<sup>1</sup>

Nor was it so far from the photographer’s home to Ronda Street in Bilbao, the birthplace of Miguel de Unamuno (1864-1936), who, after a brief pro-Basque

<sup>1</sup> José Luis Granja (ed.): *De fuera vendrá... Comedia en tres actos (1898) por Sabino Arana Goiri*. Donostia-San Sebastián: Haranburu Editor, 1982.

<sup>1</sup> José Luis Granja (ed.): *De fuera vendrá... Comedia en tres actos (1898) por Sabino Arana Goiri*. Donostia-San Sebastián: Haranburu Editor, 1982.

---

Kultura terminoak bi esanahi izan ditzake. Lehenak nortasunari egiten dio erreferentzia, baldin eta kulturatzat jotzen badira talde baten ohiturak eta usadioak. Bigarrenak, ostera, komunikazioari egiten dio erreferentzia, Spivaken hitzetan, komunikazioa “adierazteko beharrianaren fruitua” bada.

---

arraza” aztertzean zentratuak zeuden artean, Unamunoren saiakera-bilduman egilearen helburua “arima kastillanoaren” esentzia biltzea izan zen. Liburuak 98ko belaunaldiko espirituaren berri ze-carren, eta “98ko hondamendia” delakotik hartu zuen izena; alegia, Landaluzek erretraturiko inperio kolonialaren likidaziotik. Galera horrek eta Kataluniako eta Euskal Herriko nazionalismo periferikoak pizteak handitu egin zuten Espainiako intelektualen nortasun-krisia.

Ziurgabetasunaren eta aro modernoaren ateen irekiera-sasoi hari loturik egin behar da euskal nazio modernoaren nozioa sortu izanaren irakurketa. Bada, sasoi hartan nahas-mahas ageri ziren aldaketan aurkako erresistentzia, ikuspegi existentzialistak zein norberagan aurkako sentimenduak izatea (Unamuno da horren adibide garbia). Edozein “komunitate imaginario”<sup>2</sup> gisa, beste nortasun etniko bazuenganako antagonismoan sortu zen bertokoa ere. Euskal nazioa eta euskal kultura kontzeptuen justifikazioa zera zen: hizkuntzak iraun izana; bada, hain zuzen ere, hizkuntza zen “herri baten esperientziaren biltegia eta pentsamoldearen sedimentua”;<sup>3</sup> Unamunoren hitzak dira aurrekoak, nahiz eta hark gaztelania deskribatzeko baliatzen zituen. Hala, erabateko unibertso mitologikoa sortu zen erresistentzia eta nortasun eztabaidatua nozioen inguruan.

---

Kultura terminoak bi esanahi izan ditzake. Lehenak nortasunari egiten dio erreferentzia, baldin eta kulturatzat jotzen badira talde baten ohiturak eta usadioak. Bigarrenak, ostera, komunikazioari egiten dio erreferentzia, Spivaken hitzetan, komunikazioa

<sup>2</sup> Benedict Andersonnek *Imagined Communities. Reflections on Origin and Spread of Nationalism* (London: Verso, 1991) lanean emandako terminoari jarraiki.

<sup>3</sup> Miguel de Unamuno: *En torno al casticismo* (1895), Madril, Alianza Editorial, 2000.



tor, se centraron en el estudio de la “raza vasca”, en esta colección de ensayos, el objetivo de Unamuno fue captar la esencia del “alma castellana”. El libro anunciaba el espíritu de la Generación del 98, que tomaba su nombre del “desastre del 98”, la liquidación de ese imperio colonial que retratará Landaluze. Esta pérdida y el auge de los nacionalismos periféricos en Cataluña y País Vasco agudizarían la crisis de identidad en la que se sumió la clase intelectual española. Es en este periodo de incertidumbres a las puertas de la era moderna —en medio de un cruce de resistencias al cambio, visiones esencialistas y sentimientos encontrados del cual Unamuno es buen ejemplo— en el que hay que leer la aparición de la noción moderna de nación vasca. Como toda “comunidad imaginaria,”<sup>2</sup> ésta se construirá por antagonismo con respecto de otras identidades étnicas. Los conceptos de nación y cultura vascas encontrarán justificación en la pervivencia de la lengua vernácula, siendo ésta “el receptáculo de la experiencia de un pueblo y el sedimento de su pensar,”<sup>3</sup> en palabras de Unamuno, si bien refiriéndose al castellano. Así, todo un universo mitológico se construirá alrededor de las nociones de resistencia e identidad en disputa.

---

En el término cultura pueden distinguirse dos acepciones. La primera alude a la identidad, si por cultura se entiende el conjunto de costumbres e instituciones de un grupo. La segunda se refiere a la comunicación, a la cultura como, en palabras de Spivak,

<sup>2</sup> Siguiendo con el término acuñado por Benedict Anderson en *Imagined Communities. Reflections on Origin and Spread of Nationalism*. London: Verso, 1991.

<sup>3</sup> Miguel de Unamuno: *En torno al casticismo* (1895). Madrid: Alianza Editorial, 2000.

period during his youth, would publish *En torno al casticismo* (On traditionalism) in 1895. If the efforts of Unamuno’s cousin and friend Aranzadi were concentrated on the “Basque race,” in this work his goal was to capture the essence of the “Castilian soul.” The book announced the spirit of the Generation of 98, which took its name from the “disaster of 98,” the fall of the colonial empire portrayed by Landaluze. This loss and the rise of peripheral nationalisms in Catalonia and the Basque Country would exacerbate the identity crisis into which the Spanish intellectual class had plunged.

It is in this period of uncertainty at the gates of the modern age —amid a confusion of change, essentialist visions and feelings of which Unamuno is a good example— that one must read the emergence of the modern idea of the Basque nation. Like any “imagined community,”<sup>2</sup> this was constructed from a base of antagonism towards other ethnic identities. The concepts of Basque nation and culture would find justification in the survival of the vernacular language; this being “the receptacle of a people’s experience and sediment of its thought,”<sup>3</sup> in Unamuno’s words, although he was referring to Spanish. Thus, a whole mythological universe would be constructed around notions of resistance and identity in dispute.

---

The term culture implies two notions. One alludes to identity, if one takes culture to mean a group’s set of customs and institutions. The second refers to communication, to culture as, in the words of Spivak,

<sup>2</sup> Following the term coined by Benedict Anderson in *Imagined Communities: Reflections on Origin and Spread of Nationalism*. London: Verso, 1991.

<sup>3</sup> Miguel de Unamuno: *En torno al casticismo* (1895). Madrid: Alianza Editorial, 2000.

Bada, teknologiaren demokratizazioak subjektibotasunaren produkzioarako bidea zabaldu zien historian zehar adierazteko eskubiderik izan ez zuten gizon eta emakumeei (batez ere azken horiei).

“adierazteko beharrianaren fruitua” bada.<sup>4</sup> Nortasun aldaezinaren eta komunikazio-isuri aldakorren artean, tirabirazko harreman bat dago, eta hala azaltzen da arestian aipatutako bi estampa-bildumetan. Bi-bietan, hainbat subjektuk adierazi egin nahi dute. Batzuk Landaluzek irudikaturiko beltz “kurroak” dira, berezkoa duten estiloan gizarte kolonialaren baitan hausturak eragiten zituztenak; izan ere, gizarte kolonialak europar burgesaren ikuspegiaren arabera irudikaturik agertzeraz kondenaturik zeuden.

Bigarren subjektua Eulalia Abaitua da. Nahiz eta argazkilaria “irudikatzen” zutenen gizarte-taldeko kide izan, hari, beste hainbat emakumeri bezalaxe, adierazteko eskubidea ukatu egin zitzaion. Horrek azaltzen du gaiaren hautaketa, hain zuzen ere, eskuragarri zuen gaia hautatu izana: emakume langilea, bestelako emakumea. Nolanahi ere den, galdegiteko moduko auzia da haren argazkietan –argazkigilearen eta erretratatuaren bi aldeetako onarpenean– ez ote den gainditzen eta auzitan jartzen gizarte-ordenak eta kamerak inposaturiko hierarkia.

Teknologia-garapenak haustura berriak zekartzan ordena horietako lehenengoan. Irudi batean Abaituak neska gazte bat jasotzen du, bere laguntzailea, tripode bat aldean. Bada, teknologiaren demokratizazioak subjektibotasunaren produkzioarako bidea zabaldu zien historian zehar adierazteko eskubiderik izan ez zuten gizon eta emakumeei (batez ere azken horiei).

1916 eta 1917 bitartean pintatu zuen Balentin Zubiaurrek (1879-1963) *Bertsolariak* olio-pintura. Artean, Europa Gerra Handian sarturik zegoen, eta Errusian iraultzak eztanda egin zuen. Bada, pintoreak irudikatutako hamarka pertsona bat-batean ari diren bertsolariei adi daude, aurretik aipatu dugun

<sup>4</sup> Swapan Chakravorty, Suzana Milevska, Tani E. Barlow: *Conversations with Gayatri Chakravorty Spivak*. London / New York / Calcutta, Seagull Books, 2010.

“el fruto de una necesidad de explicarse.”<sup>4</sup> Entre la inmutabilidad identitaria y el cambiante flujo comunicativo existe una relación de fricción, tal como se hace evidente en dos series de estampas referidas más arriba. En las dos, varios sujetos tratan de explicarse. Unos son los negros curros retratados por Landaluze, quienes con su estilo propio abrían fracturas dentro de una sociedad colonial que les condenaba a ser representados a través de la mirada de un otro europeo y burgués.

El segundo sujeto es Eulalia Abaitua. Aunque perteneciente al grupo social de los que “representaban”, a ella, como a las de su género, se le había negado el derecho a hacerlo. Esto explica su elección de tema, aquél al que tenía fácil acceso, la mujer trabajadora, una mujer otra. En cualquier caso, cabe preguntarse hasta qué punto sus fotografías, en ese mutuo reconocimiento de retratista y retratada que parecen revelar, no trascienden la jerarquía impuesta por el orden social y el de la cámara.

El desarrollo tecnológico empezaba a abrir nuevas fallas en el primero de aquellos órdenes. En una imagen, Abaitua fotografía a una adolescente, su ayudante, cargando un trípode. La democratización tecnológica empezaba a permitir el acceso a la producción de subjetividad a todos aquéllos –aquéllas, sobre todo– a los que históricamente se les había vedado el derecho a explicarse.

“the result of a need to explain.”<sup>4</sup> There is a frictional relationship between identity immutability and communicational fluid change, as is evident in the two series of prints referred to above. In the two, several subjects try to explain. There are those free blacks portrayed by Landaluze, who with their own style opened up fractures in a colonial society which condemned them to be represented through the gaze of a bourgeois European other.

The second subject is Eulalia Abaitua. Although she belongs to the social group of those who “represent,” she, like all of her gender, would have been denied the right to do so. This explains her choice of topic, one which she had easy access to, the working woman, a female other. Whatever the case, one should ask to what extent her photographs, in the mutual recognition of the portrayer and the portrayed they seem to reveal, do not transcend the hierarchy imposed by the social order and that of the camera.

Technological development began to suffer new flaws in the first of these orders. In one image, Abaitua photographs her assistant, a girl, carrying a tripod. Technological democratisation began to allow access to producing subjectivity for all those people –especially women– who had historically been denied the right to speak their mind.

---

Entre 1916 y 1917, Valentín de Zubiaurre (1879-1963) pintará el óleo *Bersolaris*. Mientras Europa seguía sumida en la Gran Guerra y en Rusia estallaba la Revolución, la decena de figuras retratadas por el pintor, absortas en la escucha de los versos improvisados por una pareja de bertsolaris, permanecían

---

Valentín de Zubiaurre (1879-1963) painted the oil painting *Bersolaris* between 1916 and 1917. While Europe was plunged into the Great War and the Revolution broke out in Russia, the ten figures portrayed by the painter, absorbed in listening to *bertsos* (improvised oral verses) by a pair of *bertsolaris* (*bertso*

<sup>4</sup> Swapan Chakravorty, Suzana Milevska, Tani E. Barlow: *Conversations with Gayatri Chakravorty Spivak*. London / New York / Calcutta: Seagull Books, 2010.

<sup>4</sup> Swapan Chakravorty, Suzana Milevska, Tani E. Barlow: *Conversations with Gayatri Chakravorty Spivak*. London / New York / Calcutta: Seagull Books, 2010.



Valentín de Zubiaurre. *Bersolaris* (c. 1916-1917)

giro horretatik guztiz at. Keinu hieratikoeek eta kanon luzangak aditzera ematen duenez, bizi duten unibertsoa mundu moderno dinamikotik oso urruti dago. Jantzien eta osagarrien deskripzioaren zehaztasun etnografikoaz gaindi, unibertso hori ez dagokio tradiziozko errealismoari, ezpada denboran geratutako mundu idealizatu bati.

Kantatzen ari ez direnen aho irekiek eta entzuleen begirada arretatsuek bidea ematen digute Zubiaurrek soinuazko gertakizunak nola jasotzen zituen imajinatzeko, ezen musikari baten semea, Zubiaurre, bere anaia margolaria bezalaxe, gormutua baitzen jaiotzez. Gogoetarako gaia da, halaber, bi anaien pinturaren ezaugarri sinbolistak ezin ote diren azaldu isolamendu erradikal horren bidez eta eskuragarri ez zituzten gertakizunak adierazi beharraz.

Euskal artista nobrezentista talde batek “euskal artea” izenez ezagun egindako iruditeria sortu zuen. Bada, talde horretako kide izan ziren Erramun eta Balendin Zubiaurre, Zuloagarekin, Maezturrekin eta Artetarekin batera. Hain zuzen ere, nobrezentismoak balio modernoak tradizioan eta lekuan-lekuan bilatzearen defentsa egiten zuen; nolabait, iraganarekin jarraitzeko jarrera agertzen zen, laurogeita hamazortzikoeek egiten zuten bezala. Abangoardiak ordena guztiekin erabateko haustearen alde egiten zuen artean, aipaturiko mugimenduen kasuan, “modernoak” ideia aski berria eta tradizionala zen. Hala ere, bi-biak ziren XIX. mendeko ideia liberal-burgesen oinordeko. Euskal Herria eta espainiar estatua periferian kokatzeak eta egitura zaharrek irauteak azaltzen du orduko garaia Europako beste herrialde batzuekin bat ez etortzea, ezen azken horiek guztiz murgildurik baitzeuden proiektu modernoan.

XX. mendeko bigarren hamarkadaz geroztik eta industriaren garapenak sustatuta, Euskal Herrian kultur pizkunde garrantzitsua bizi izan zen. Bada, Zubiaurrek *Bertsolariak* pintatu zuen urte berean, *Hermes* aldizkariaren lehenengo zenbakia atera zen. Abertzaleen arteko sektore jakin batek finantzaturiko

ajenas a todo. Tal y como lo delatan sus gestos hieráticos y canon alargado, el universo que habitan está en otro lugar lejos del dinámico mundo moderno. A pesar de la fidelidad etnográfica en la descripción de trajes y enseres, ese universo no es el del realismo costumbrista, sino el de un mundo idealizado detenido en el tiempo.

Las bocas abiertas de las que no brota canto alguno y las miradas atentas del auditorio nos llevan a imaginar la peculiar vivencia que del sonido tendría Zubiaurre, hijo de músico y, como su hermano Ramón, también pintor, sordomudo de nacimiento. También a especular si los rasgos simbolistas de la pintura de los dos hermanos no pueden explicarse por ese aislamiento radical y por la necesidad de representar realidades a las que no tenían acceso.

